

IRAKURMENA

2. testua

Egitekoa

Irakur ezazu artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Esaldi bat sobera dago. 0 adibidea da.

Idatzi letra dagokion laukian.

* Erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 lortuko duzu. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

Harald erregea

Danimarkan, 958. urtean Gorm Zaharra erregea hil zen, eta haren seme Harald Gormsonn izendatu zuten oinordeko. (0) -----, erresuma bikingoetan, boterea eskuratzeko, klanetako buruzagi boteretsuenak elkarren aurka borrokatzeko ohitura baitzegoen.

Haralden boterea haziz eta hedatuz joan zen, eta 970. urtean Norvegiako errege bihurtu zen. (1) -----, eta gure lurretara ere hurbildu zen; 978an Kantauri itsasoko kostaldera iritsi zen, Iberiar penintsularen iparraldean hainbat sarraldi egiteko asmoz.

Gainera, (2) ----- Gormen semea. 960. urtean, germaniarrek bidalitako apaiz baten bisita jaso zuen Harald. Bikingoen bederatzai jainkoak existitzen ez zirela eta zeruan jainko bakarra, jainko kristaua, zegoela esan zion apaizak. (3) -----: burdina gorria jarriko zion eskuetan eta bere jainko bakarrak babesten bazuen, apaizak esandakoa sinetsiko zuen. Kondairak dioenez, burdina gorriak ez zuen apaiza erre. Orduan, (4) ----- Haren mendeko gehienek ez zieten berehalakoan beren sinismen zaharrei uko egin, baina kristautasunaren hazia ereinda zegoen.

Haraldek ez zuen eskandinaviarren ohiko itxura. (5) ----- zen, eta, horregatik, herritarrek Blåtand esaten zioten (blå hitzak beltzaren esan nahi du, eta tand-ek, aldiz, gizon handia). Ingelesezt, ordea, Bluetooth (hortz urdin) goitizena jarri zioten. Batzuek diote Blåtand hitzarekin duen antzekotasun fonetiko hutsagatik itzuli zutela izena. (6) ----- eta eritasun horrek hortz-haginak urdintzen dituelako jarri ziotela ezizena.

Harald 986. urte inguruan hil zen, Ingalaterra konkistatu zuen bere seme Svendek hala aginduta, ustez. Itxuraz, aitzak abiatutako oinordekotza sistema gustuko zuen, baina ez zuen heriotza naturalaren zain egoteko pazientziarik.

Handik hamaika mendera, Ericsson enpresak telefonia teknologia berria garatu zuen -- (7) ----- eskandinaviar erregearen omenez.

Nagore Irazustabarrena.
Argia.com, 2347. alea. 2012/12/02. Moldatua.

2. testua

Jarri testu-zati bakoitza dagokion hutsunean. Idatzi erantzunak beheko laukian, adibidean egiten den bezala. Esaldi bat sobera dago.

- a. erregeak, orduan, frogar garbi bat eskatu omen zion germaniar apaizari
- b. azal eta ile beltzaraneakoa
- c. aita hil eta koroa semeak hartzen zuen lehen aldia zen Eskandinavian
- d. erregeak ez zuen amore eman eta etsai guztiak kanporatu zituen
- e. eta Bluetooth izena jarri zion
- f. haren botere eta ondasun grina ez zen Eskandinaviara mugatu
- g. erregeak bataiatzea eta erresuma guztia kristau bihurtzea erabaki zuen
- h. eskandinaviarrak kristautasunera konbertitzeko giltza izan zen
- i. baina beste teoria batek dio Haraldek eritroblastosi fetala izan zuelako

Idatzi erantzunari dagokion letra ondoko laukietan:

0.- C	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-	6.-	7.-
-------	-----	-----	-----	-----	-----	-----	-----